

KEA URI AUNDIETAN (Berebillak)

Berebillak saltzeko zabalkunde aundia egiten da aspaldion, beste salgai asko saltzeko egiten dan antzera. Ez gitxiago.

Zabalkundea egiten dan bakoitxean beste au esan bear litzake: "Osakidetzak argi diño berebillak gure osasunarentzat benetan kaltegarriak dirala".

Munduko Osasun-Batzordeak (OMS), arazo oneri begira, iru errialde aztertu dauz: Frantze, Swiz eta Austri. Errialde oneitan urte baten 21.000 eriotza aurreratu dauz berebillen keak eta, gainera, ke onek kalte aundiak egin dauz umeen birietan, biotz-estuetan eta arnas-estuetan. Bideko iztripuetan 10.000 erritar il dira, baiña berebillen keak 21.000 eriotza eta gaiso asko ekarri dauz.

Laterri Batuetan tabakoaren aurka salaketak egiten dira epaitegietan. Zergaitik ez berebillen aurka?

Berebillak saltzeko zabalkundea egiten dabenean, dana agertzen da ondo baiña ez da agertzen berebillen keak egiten dauan kaltea, edo bideetan orduak eta orduak igaro bear izaten dirala alkarren atzean itxaroten dala, norberarentzat naiz besteentzat oso arriskugarria, edo konponketak egoteko millak pezeta asko emon bear izango dala, gauko urietan ez dala aurkitzen berebilla non itzirik edo asko ordaindu bear izaten dala.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Zabalkunde ori agintariakaz oso ondo alkartuta agertzen da: Laterriarentzat irabazbide aundi bat da, lanpostuak sortzen dauz, zerga aundia ordaintzen dabe... Olakaoak ez dira esaten, baiña or dagoz.

tzat ez egiteko, izango dira or dirudunen gurariak. Arrioak indar aundia dauka gaurko munduan.

OLAZAR'tar Martin'ek

Eta guk arnasan kea artu bear, eta ke aundia artu be, ainbeste berebil dabil lelako!

Itaun batzuk dakarskuz burura arazo onek: Zergaitik ez dira zabaltzen tximist-indarrezko berebillak? Edo, zergaitik ez dira erabilten uri aundietan busak (omnibus'ak) bakarrik? Olako eta bearrezkoak diran aldakun-

✂ ✂ ✂